

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2009/407/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko maiatzaren 9koa, urte anitzeko finantza-esparruari dagozkion aurrekontu-diziplinaz eta finantza-kudeaketa onaz 2006ko maiatzaren 17an hartutako Institutuzio arteko Akordioa aldatzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISIÓN 2009/407/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 6 de mayo de 2009, por la que se modifica el Acuerdo interinstitucional, de 17 de mayo de 2006, sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera en relación con el marco financiero plurianual (2007-2013)» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 132/8, 2009/5/29koa)  
2008/407/EE Erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 132/8, 2009/5/29koa)

II

*(Derrigorrez argitaratu behar ez diren EE/Euratom Tratatuak aplikatuta onartutako egintzak)*

ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

EUROPAKO PARLAMANTUAREN ETA KONTSEILUAREN

ERABAKIA

2009ko maiatzaren 6koa

**urte anitzeko finantza-esparruari dagozkion aurrekontu-diziplinaz eta finantza-kudeaketa onaz 2006ko maiatzaren 17an hartutako Instituzio arteko Akordioa aldatzen duena**

**(2007-2013)**

(2009/407/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak aurrekontu-diziplinaz eta finantza-kudeaketa onaz 2006ko maiatzaren 17an hartutako Instituzio arteko Akordioa <sup>2</sup> aztertu dute, eta, bereziki, 21. paragrafoa, 22. paragrafoko lehen eta bigarren lerroak eta 23. paragrafoa.

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) 2009ko apirilaren 2an hiru aldean artean egindako bileran, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak erabaki zuten – azpiegiturak modernizatzeko eta energia-elkartasunerako Ekonomia Suspertzeko Europako Planaren baitan – energiaren alorreko eta banda zabaleko Interneten alorreko proiektuak finantzatzea. Horrez gain, erabaki zuten «erronka berriekin» lotutako eragiketak sendotzea. Erronka horiek nekazaritzako politika bateratuaren 2003ko tarteko erreformaren ebaluazioaren baitan zehaztu ziren («azterketa» deritzon). Finantziatorako, ezinbestekoa da, lehen fasean, urte anitzeko (2007-2013) finantza-esparrua berraztertzea, Instituzio arteko Akordioaren 21, 22 eta 23. paragrafoei jarraiki. Horren helburua da 2009. urterako 1a azpi-idazpuruan konpromiso-kredituen gehieneko muga 2.000 milioi euro handitzea, eguneko prezioetan.

- (2) 1a azpi-idazpururako gehieneko muga handitzea konpentsatu egingo da guztirakoan, honela: 2. idazpuruak 2009ko kreditu-konpromisoen gehieneko muga 2.000 milioi euro murriztuta.
- (3) Konpromisoen eta ordainketen artean erlazio egokia izateko, ordainketa-kredituen gehieneko mugak egokitu egingo dira. Egokitzea neutrala izango da.
- (4) Horrenbestez, aldatu egin behar da aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzko Instituzio arteko Akordioa I. eranskina <sup>3</sup>.

ERABAKI HAU HARTU DUTE:

*Artikulu bakarra*

Aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzko Instituzio arteko Akordioa I. eranskina Erabaki honen eranskinak ordeztu du.

Estrasburgon emana, 2009ko maiatzaren 6an.

*Europako Parlamentuaren izenean,*

*Presidentea*  
H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean,*

*Presidentea*  
J. KOHOUT

<sup>2</sup> C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.

<sup>3</sup> Horretarako, aipatutako akordiotik ateratzen diren kopuruak 2004ko prezio bihurtuko dira.

## Marco financiero 2007-2013 revisado para el Plan Europeo de Recuperación Económica (a precios constantes de 2004)

(millones EUR, a precios constantes de 2004)

CRÉDITOS DE COMPROMISO	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Total 2007-2013
<b>1. Crecimiento sostenible</b>	<b>50 865</b>	<b>53 262</b>	<b>55 883</b>	<b>54 860</b>	<b>55 400</b>	<b>56 866</b>	<b>58 256</b>	<b>385 392</b>
1a Competitividad para el crecimiento y el empleo	8 404	9 595	12 021	11 000	11 306	12 122	12 914	77 362
1b Cohesión para el crecimiento y el empleo	42 461	43 667	43 862	43 860	44 094	44 744	45 342	308 030
<b>2. Conservación y gestión de los recursos naturales</b>	<b>51 962</b>	<b>54 685</b>	<b>52 205</b>	<b>53 379</b>	<b>52 528</b>	<b>51 901</b>	<b>51 284</b>	<b>367 944</b>
incluidos gastos de mercado y pagos directos	43 120	42 697	42 279	41 864	41 453	41 047	40 645	293 105
<b>3. Ciudadanía, libertad, seguridad y justicia</b>	<b>1 199</b>	<b>1 258</b>	<b>1 380</b>	<b>1 503</b>	<b>1 645</b>	<b>1 797</b>	<b>1 988</b>	<b>10 770</b>
3a Libertad, seguridad y justicia	600	690	790	910	1 050	1 200	1 390	6 630
3b Ciudadanía	599	568	590	593	595	597	598	4 140
<b>4. La Unión Europea como actor mundial</b>	<b>6 199</b>	<b>6 469</b>	<b>6 739</b>	<b>7 009</b>	<b>7 339</b>	<b>7 679</b>	<b>8 029</b>	<b>49 463</b>
<b>5. Administración <sup>(1)</sup></b>	<b>6 633</b>	<b>6 818</b>	<b>6 973</b>	<b>7 111</b>	<b>7 255</b>	<b>7 400</b>	<b>7 610</b>	<b>49 800</b>
<b>6. Compensaciones</b>	<b>419</b>	<b>191</b>	<b>190</b>					<b>800</b>
<b>Total de créditos de compromiso</b>	<b>117 277</b>	<b>122 683</b>	<b>123 370</b>	<b>123 862</b>	<b>124 167</b>	<b>125 643</b>	<b>127 167</b>	<b>864 169</b>
en porcentaje de la RNB	1,08 %	1,09 %	1,07 %	1,05 %	1,03 %	1,02 %	1,01 %	1,048 %
<b>Total de créditos de pago</b>	<b>115 142</b>	<b>119 805</b>	<b>110 439</b>	<b>119 126</b>	<b>116 552</b>	<b>120 145</b>	<b>119 391</b>	<b>820 600</b>
en porcentaje de la RNB	1,06 %	1,06 %	0,96 %	1,01 %	0,97 %	0,98 %	0,95 %	1,00 %
Margen disponible	0,18 %	0,18 %	0,28 %	0,23 %	0,27 %	0,26 %	0,29 %	0,24 %
Límite máx. recursos propios en porcentaje de la RNB	1,24 %	1,24 %	1,24 %	1,24 %	1,24 %	1,24 %	1,24 %	1,24 %

<sup>(1)</sup> El cálculo de los gastos correspondientes a pensiones incluidos en el límite máximo de esta rúbrica se ha efectuado sin contar las contribuciones del personal al régimen correspondiente, con el límite de 500 millones EUR a precios de 2004 durante el período 2007-2013.